

Etika Publikorako Batzordea

Gaia: 4/2024

ERABAKIA, (...)KO LANGILE BATEK KARGU PUBLIKODUN BATEN KONTRA AURKEZTU DUEN SALAKETAREN HARIRA (...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.

1.- (...)ko langile batek (...) horretako (...)ren kontra aurkeztutako salaketaren kopia jaso da Etika Publikorako Batzordean (EPB).

2.- Igorritako idazkian adierazten denez, langileak (...)ren kontra aurkeztutako salaketaren kopia bidaltzen da, "azter dadin (administrazio- eta diziplina-alderdiak bakarrik aztertuko dira; alderdi penalak aztertzeko, interesdunak poliziarengana edo epaitegietara jo beharko du) [...]".

3.- Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek eta bestelako instantziek EJKren aplikazioari buruz egiten dituzten kontsultak ebaztea.

4.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez.

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak.

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago egun. Bi helburu hauek

lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan zuten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatutako Kodeak zehaztu egiten du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Bestalde, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea, eginkizun publikoak dituenak betebeharrak etikoak eta betebeharrak sozialak bete ditzan eman zen, horrela gizarteak guztion interesa kudeatzen duenarengan duen benetako konfiantzari eutsi nahi baita, bai eta kargu publikoak dutenek bizitza politikoan erabili behar duten gardentasunari ere.

Lege horren II. kapituluak eginkizun garrantzitsu hau du: kargu publikodunen jokabide-kodea osatzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Kapitulu horren asmoa ez da soilik zerbitzari publikoaren eredu adieraztea edo horri buruzko informazioa ematea, zerbitzari publikoak zaindu eta bermatu nahi da eta. Horrez gain, testu arauemailerik bat ere bada, zeinak, legearen indarrarekin, karguari dagokion funtzio publikoak betetzean bete beharreko betebeharrak ezartzen baititu.

II. lerro horretan, Etika eta Jokabide Kodeak (EJK) bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (lege horretan arautzen dira kargu publikodunen Jokabide Kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo EJKn dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du EPB honek, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez-betetzei buruzko keaxak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea».

II.- Etika Publikorako Batzordeak aztertzeko aurkeztutako gaia.

1.- (...)k salaketa bat bidali du Etika Publikorako Batzorde honetara, (...) horretako langile batek (...)ren kontra aurkeztua.

Igorritako idazkian adierazten denez, salaketaren kopia bat bidaltzen zaio EPB honi, «*azter dadin*», baina ez da besterik zehazten. Beraz, pentsatzekoa da kontsultaren helburua dela EPBk azter dezan ea kargu publikodunak Etika eta Jokabide Kodea urratu duen ala ez, hori baita Batzordearen eginkizuna.

2.- (...)ko (...)k bidalitako idazkiarekin batera, langileak (...)an bertan aurkeztu duen salaketaren kopia bidali da.

Salaketa dokumentu luzea da, nahasia, une batzuetan ulertzen zaila, baina bertatik honako hau ondoriozta dezakegu:

- Salatzaileari diziiplina-espedita bat ireki zitzaion (...)gatik, eta ohartarazpen-zehapen bat ezarri zitzaion falta arin bat egiteagatik.
- Ondoren, beste diziiplina-espedita bat ireki zitzaion, eta, aurretiazko informazioen izapidea egin ondoren, jarduketak Fiskaltzara bidaltzea erabaki zen; dirudienez, aurretiazko eginbideak ireki ziren (...)ko Instrukzioko (...) zenbakiko Epaitegian.
- Salaketa-idazkian adierazten du ez dagoela ados espedita fiskaltzara igortzearekin, eta ez dagoela ados epaitegira bidalitako informazioarekin.

- Idazki ugari bidali ditu (...) (...)ra, eta, interesdunak adierazi duenez, Aholkularitza Juridikoak eskatu dio ez bidaltzeko «*prozedura honi buruzko dokumentazio gehiago, eta Epaitegira jotzea gomendatzen dit nire defentsarekin lotutako edozein gairi buruz jarduteko*».
- Interesdunak (...)an aurkeztu dituen idazkietatik ondorioztatzen denez, haserre dago, eta ez dago ados ez espedientea Fiskaltzari helarazi izanarekin, ez eta Epaitegira bidali diren informazioekin ere, ez baitago ados informazio horien edukiarekin.
- Interesdunak egindako jarduerengatik prozedura penal bat izapidetzen ari den arren, idazkiak (...)ra bidaltzen ditu, frogatu nahian ez direla egiazkoak salatutako gertaerak eta ez dituela inoiz (...).

3.- Interesdunak (...)ri zuzendutako idazkietan bi gai planteatzen dira: alde batetik, diziiplina-prozedura bat dagoela, eta, bestetik, lortutako informazioa fiskaltzara bidali dela eta instrukzio-epaitegiak aurretiazko eginbideak ireki dituela.

Lehenik eta behin, aipatu behar dugu guztiz juridikoak diren bi gairen aurrean gaudela, eta, antolamendu juridikoak gai horiek ebazteko bide administratiboak nahiz judizialak aurreikusita eta zehaztuta dauzkala. Organo jakin batzuek zorrotasunez esleituta dauzkate horretarako eskumenak; batzorde honek ezin du eta ez du horien lana eragotzi behar.

4.- Diziiplina-prozedura administratiboari, dagokionez, Etika Publikorako Batzorde honek behin baino gehiagotan adierazi duen bezala, EPBri ez dagokio administrazio-jardunaren legezotasunari buruzko iritzirik ematea; haren eginkizuna da irizpena ematea Etika eta Jokabide Kodea betetzen ote duten Etika eta Jokabide Kodearekiko borondatezko atxikimendua formalizatu duten kargu publikodunek eta parekatuek.

Epailleek eta auzitegiek ebatziko dute, hala badagokie, Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunen jardunak antolamendu juridikora egokitzen diren, kontuan hartu gabe batzorde honek zer erabakitzen duen jarrera horiek Etika eta Jokabide Kodearen aurreikuspenekin duten bateragarritasunaz.

Horrek ez du esan nahi, ordea, legea betetzeak ez duela zerikusirik kargu publikodunen jokabide etikoarekin. Aitzitik, legea betetzea oinarritzko arau etikoa da, kargu publikodun orok bete beharrekoa. Arau hori urratzen da, Etika Publikorako Batzorde honek aintzat hartzen dituen ondorioetarako, araubide juridikoa ezagueraz, nahita eta nabarmen urratzen denean soilik.

Diziplina-espedientea baloratu edo aztertzeak EPB honen funtzioak gainditzea ekarriko luke, ez baita hura zehaztu eta aztertu behar duen instantzia; beraz, EPB honek ezin du berrikusi diziplina-espedientea izapidetzea eta dagokion ebazpena eragin duten gertakarien legezotasuna, eta ez du horrelakorik egin behar.

5.- Gogoeta horren ildo beretik, kasu honetan, azpimarratu beharra dago Etika Publikorako Batzorde honen lana ez dela adieraztea ea administrazioaren dena delako jarduna legezkoa iruditzen zaigun, edo halako goi-kargu batek egin duena legez zuzena begitantzen zaigun.

Horrenbestez, adierazi dugunez —eta horrek ez du esan nahi, hala ere, legezotasuna kargu publikodunen jokabide etikotik at geratzen denik—, batzorde honek ezin du izan karguek alderdi administratiboan edo judizialean zer egiten duten aztertzeko organo, administrazioan eta baita auzi-bidean ere bai batira horretarako beste instantzia batzuk, eta ezin dugu haien pareko albo-bide izaten amaitu, hala bukatuko baikenuke. Horregatik, aipatu dugun moduan, Etika Publikorako Batzordearen lana da, batez ere, aztertzeta ea EJKra borondatez batu diren kargu publikoek eta parekatuek kode hori betetzén duten edo ez.

Adierazi dugunez, salaketa-idazkitik ondorioztatzen da judizializatuta dauden gaiet buruz ari dela, eta, beraz, organo judizialei dagokie haiek ebaztea; eta organo judizial horiek independentzia osoz jardun behar dute, EPB honek bere erabakietan esku hartzeko aukerarik izan gabe. Ez gaude EJKren balizko urraketa baten aurrean, baizik eta organo judizialek aztertu eta ebatzi beharreko gertakarien aurrean.

~~6.- Kargu publikodun batek bere ustez delitu izan daitezkeen gertakari batzuen berri eman dio fiskaltzari, eta hori ez da EBPrean aurkako jarduketa bat; aitzitik, kargu publikodun gisa dagokion betebeharra da.~~

Hala ezartzen du espresuki Prozedura Kriminalaren Legeak haxe adierazten du 262. artikuluan, adierazten baitu: «*Norbaitzuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute berehala horren salaketa egin beharko diote Fiskaltzari, auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari, eta, halakoa izan ezean, tokitik hurbilen dagoen udaltzainari edo polizia funtzionarioari, baldin eta ageri-ageriko delitua bada*».

Ondorioz, delitu publiko bat egiten ari dela ikusten duen pertsona oro edo, ikusi gabe ere, beste moduren batean haren berri duena, berehala agintariari jakinaraztera behartuta dago, eta, hori egiten ez badu, arau-haustea egingo du; gainera, bereziki salatzerara behartuta daude enplegatu edo funtzionario publikoak eta beren karguagatik, lanbideagatik edo ofizioagatik delitu bat egin dela dakitenak.

7.- Botere judizialari dagokio prozedura judizial ireki bat izapidetzea, Konstituzioaren arabera hari baitagokio epaitzea eta epaitutakoa betearaztea, eta, beraz, auziaren xedeari buruzko epai loteslea eta betearazlea ematea. Ikuspuntu horretatik, esan dugun moduan, azpimarratu behar da Etika Publikorako Batzorde honen zeregina dela -eta hauxe besterik ez-, galderarik edo salaketa-rik egiten zaionean argitzeko ea, EJKn finkatutako jokamoldeen arabera, EAEko sektore publikoko kargu publikodunen jokaera zuzena izan ote den, galdera eta salaketa horiek ebaztea. Eginkizun horrek ezin du oztopatu beste organo batzuek beren erantzukizunen esparruan izan dezaketen egitekoa, eta gure zereginak zorrotz errespetatu behar ditu beti organo horien funtzioak, haietako bakoitza bere funtzioak ari baita betetzen, baita esku artean dugun kasuan ere.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

BAKARRA.- (...)ren jardunari buruz aurkeztutako salaketa artxibatzea. Etika Publikorako Batzorde honek ez du bere jokabidean ikusten Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio eta jarraibideak urratu izanaren zantzurik, Etika Publikorako Batzorde honek bidalitako eta aztertutako dokumentazioaren eta informazioaren argitan.

Olatz Garamendi Landa
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 20a.